



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko apirilaren 26a

45. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Europako 2016ko Kultur Hiriburua izateko hautagaien artean boto gutxien lortu duen hiriburua Iruña izateko arrazoiei buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (3. or.).
- Galdera, Euskarazko komikien marrazkilariek Nafarroako Komikiaren Nazioarteko Lehen Erakusketan izan duten presentziari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (4. or.).
- Galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren zer kontusail ukitu-ko dituen Gastua Kontrolatzeko Planak, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Merkataritzako Erregistroan inskribatuta dauden Leitzako, Aresoko, Aranoko eta Goizuetako enpresei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (5. or.).
- Galdera, basoilarraren egoerari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (5. or.).
- Galdera, janarien eta edarien “Alimentaria 2010” erakusketari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (6. or.).
- Galdera, landa eremuko larrialdi zerbitzuko profesionalen beharrianak asetzeko aurrekontuari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (6. or.).
- Galdera, zailtasun handiko lanpostuen katalogoa egiteari buruz onetsitako erabakia betetzeari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (7. or.).
- Galdera, haurren arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea behar bezala artatzeko eta tratatzeko neurriak direla-eta Arartekoak eginiko gomendioen jarraipenari buruzko ebaluazio zehatz bat egiteko erabakia betetzeari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (8. or.).
- Galdera, Tafallako eskualdeko eskola publikoa handitzeari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Garraioei, Mugikortasunari eta Azpiegiturei buruzko Plan Integralari, Bidaiarien Garraioari buruzko Foru Legeari eta Nafarroako Mugikortasun Iraungarriari buruzko Foru Legeari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (9. or.).
- Galdera, gizarte-langile izateko hamalau lanposturen deialdiari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (10. or.).

- Galdera, Leitzako Ixkibar-Leitzelarrea turismo-multzoa Nafarroako Produktu Turistikoen Garapenerako Planean sartzeari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (11. or.).
- Galdera, jakiteko zertan erabili zen Leitzako Maxurrenea errentan emateagatik 2009an jasotako dirua, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Animalia Babesteko Zentroari eta zakurrak harrapatu eta biltzeko zerbitzuari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (12. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 2/2010 Legegintzako Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (14. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Europako 2016ko Kultur Hiriburua izateko hautagaien artean boto gutxien lortu duen hiriburua Iruña izateko arrazoiei buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Europako 2016ko Kultur Hiriburua izateko hautagaien artean boto gutxien lortu duen hiriburua Iruña izateko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurrak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako ahozko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak dagokion batzordean erantzun dezan:

Iruña da, ehuneko 1,49rekin, Europako 2016ko Kultur Hiriburua izateko hautagaien artean boto gutxien lortu duen Espainiako hiria, candidatecities.com webgunean hamabost hautagaiek jasotako botoekin eginiko sailkapenaren arabera.

Kultura eta Turismo kontseilariaren arabera, zergatik da Iruña Europako 2016ko Kultur Hiriburua izateko hautagaien artean boto gutxien lortu duen hiria?

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Euskarazko komikien marrazkilariek Nafarroako Komikiaren Nazioarteko Lehen Erakusketan izan duten presentziari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Euskarazko komikien marrazkilariek Nafarroako Komikiaren Nazioarteko Lehen Erakusketan izan duten presentziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Parlamentu honetako Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dezan:

Euskarazko komikien marrazkilariek zer presentzia izan dute Nafarroako Komikiaren Nazioarteko Lehen Erakusketan, zeina berriki Kondestabilearen Jauregian egin baita?

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren zer kontusail ukituko dituen Gastua Kontrolatzeko Planak.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren zer kontusail ukituko dituen Gastua Kontrolatzeko Planak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Parlamentu honetako Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzun dezan:

Kultura eta Turismo Departamentuaren zer aurrekontu-lerro ukituko ditu Nafarroako Gobernuak onetsitako gastu-kontrolako planak, 4,2 milioi euroko gastu-aurrezpena eragiten duenak?

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Nafarroako Merkataritzako Erregistroan inskribatuta dauden Leitzako, Aresoko, Aranoko eta Goizuetako enpresei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Merkataritzako Erregistroan inskribatuta dauden Leitzako, Aresoko, Aranoko eta Goizuetako enpresei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako zein enpresa dira Nafarroako Merkataritzako Erregistroan inskribatuta daudenak? Enpresa-zerrendaren kopia nahi nuke.

Iruñean, 2010eko apirilaren 8an.

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, basoilarraren egoerari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, basoilarraren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Gaur egun Nafarroan zein egoeratan dago basoilarra? Populazioaren urtez urteko xehakapena, azkeneko hamarkadan zehar.

Iruñean, 2010eko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, janarien eta edarien “Alimentaria 2010” erakusketari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, janarien eta edarien “Alimentaria 2010” erakusketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Janarien eta edarien “Alimentaria 2010” Barzelonako nazioarteko erakusketan zenbateko aurrekontua erabili du Nafarroako Gobernuak?

- Zein kontusail erabili da helburu horretarako?

Iruñean, 2010eko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, landa eremuko larrialdi zerbitzuko profesionalen beharrianak asetzeko aurrekontuari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, landa eremuko larrialdi zerbitzuko profesionalen beharrianak asetzeko aurrekontuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari

Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Landa eremuko larrialdi zerbitzuko medikuak parlamentu-taldeekin bildurik egon dira, haien interes profesionalekoak diren zenbait afera adierazteko. Besteak beste, honako hauei erantzutea nahi dute:

- Aurrekonturik ba al dago babes indibidualeko ekipoei dagozkien beharriari aurre egin ahal izateko?

Erantzuna baiezkoa bada:

- Zenbateko aurrekontua da hori?

- Nola banatuko da landa eremuko larrialdi zerbitzuko profesionalen babes-ekipamendua?

Iruñean, 2010eko apirilaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, zailtasun handiko lanpostuen katalogoa egiteari buruz onetsitako erabakia betetzeari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, zailtasun handiko lanpostuen katalogoa egiteari buruz onetsitako erabakia betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako

Gobernuko Erakundeekiko Harremanetarako konseilari Catalán jaunak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak erabaki bat onetsi zuen 2009ko ekainaren 25ean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean urte bereko uztailaren 3an argitaratua. Jarraian agertzen dugu haren testua, eta jakin nahi dugu zer urrats egin dituen Nafarroako Gobernuak erabaki hori betetzeko.

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irizpideak presta ditzan zailtasun handiko lanpostuen katalogoa egite aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du betetzeko zailak izateagatik zailtasun handikoak diren lanpostuen sailkapen bat egin dezan. Sailkapen horrekin batera pizgarri ez-ekonomikoak ezarriko dira, bai funtzionarioentzat bai behin-behineko irakasleentzat."

Iruñean, 2010eko apirilaren 13an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, haurren arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea behar bezala artatzeko eta tratatzeko neurriak direla-eta Arartekoak eginiko gomendioen jarraipenari buruzko ebaluazio zehatz bat egiteko erabakia betetzeari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, haurren arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea behar bezala artatzeko eta tratatzeko neurriak direla-eta Arartekoak eginiko gomendioen jarraipenari buruzko ebaluazio zehatz bat egiteko erabakia betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabal andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat,

honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak erabaki bat onetsi zuen 2009ko urriaren 22an, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean urte bereko azaroaren 2an argitaratua. Jarraian agertzen dugu haren testua, eta jakin nahi dugu zer urrats egin dituen Nafarroako Gobernuak erabaki hori betetzeko.

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hilabeteko epean aurkeztu dezan ebaluazio zehatz bat haurren arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea behar bezala artatzeko eta tratatzeko neurriei buruz Arartekoak eginiko gomendioen jarraipenari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2010eko urtarriletik aurrera abian jar dezan haurren arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea behar bezala artatzeko eta tratatzeko plan integral bat, zeina oinarrituko baita Arartekoak horri buruz emandako gomendioei buruz eginiko azterketan eta ebaluazioan."

Iruñean, 2010eko apirilaren 13an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Tafallako eskualdeko eskola publikoa handitzeari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Tafallako eskualdeko eskola publikoa handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

• Hezkuntza Departamentuak inolako asmorik ba al du Tafallako 2. birpartzelazio-eremuko 6. EP lurzatia erabiltzeko, herri horretako eskualde-eskola publikoa handitze aldera?

Iruñean, 2010eko apirilaren 14an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Garraioei, Mugikortasunari eta Azpiegiturei buruzko Plan Integralari, Bidaiarien Garraioari buruzko Foru Legeari eta Nafarroako Mugikortasun Iraungarriari buruzko Foru Legeari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Garraioei, Mugikortasunari eta Azpiegiturei buruzko Plan Integralari, Bidaiarien Garraioari buruzko Foru Legeari eta Nafarroako Mugikortasun Iraungarriari buruzko Foru Legeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak, bere inbestidura-hitzaldian, honakoa esan zuen: "Gauzatu beharreko politiken eta ekimenen marko gisa, Nafarroako Garraioei, Mugikortasunari eta Azpiegiturei buruzko Plan Integral bat prestatuko dugu, alderdi politikoaren, gizarte-eragilearen, adituen eta herritarren partaidetzarekin".

Halaber, Miguel Sanz jaunak honakoa azaldu zuen: "Plan integral horrek oinarri izan behar du, batetik, garraio publikoaren sustapenik handiena, hiri-, eskualde- eta erregio-mailetan, eta, bestetik, ekimen berrien diseinua, Nafarroan garraioaren eta logistikaren sektoreari bultzada trinkoa emateko, eraginkortasun ekonomikoaren eta iraungarritasunaren irizpideen gidaritzapean". Halaber adierazi zuen: "garraio publikoaren ikuspegitik, eta Iruñeko autobus-geltoki berria burutu ondoren, Nafarroako Bidaiarien Garraioari buruzko Plana taxutu eta abiaraziko da, eta Parlamentu honi igorriko zaio, onesteko, Nafarroako Bidaiarien

Garraioari buruzko Legea eta Nafarroako Mugikortasun Iraungarriari buruzko Legea..."

Hori guztia dela-eta, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

1. Zenbateraino dago prestatuta Nafarroako Garraioei, Mugikortasunari eta Azpiegiturei buruzko Plan Integrala, eta zein egoeratan dago gaur egun? Plan integral hori zein datatarako prest egonen dela aurreikusten da?

2. Zenbateraino dago prestatuta Nafarroako Bidaia-irien Garraioari buruzko Foru Legea, eta zein

egoeratan dago gaur egun? Lege proiektu hori zein datatarako prest egonen dela aurreikusten da?

3. Zenbateraino dago prestatuta Nafarroako Mugikortasun Iraungarriari buruzko Foru Legea, eta zein egoeratan dago gaur egun? Lege proiektu hori zein datatarako prest egonen dela aurreikusten da?

Iruñean, 2010eko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, gizarte-langile izateko hamalau lanposturen deialdiari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, gizarte-langile izateko hamalau lanposturen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Gizarte-langile izateko hamalau lanposturen deialdiari buruzko galdera.

- Zer dela-eta atzeratzen ari da, hilabetez hilabete, gizarte-langile izateko hamalau posturen deialdia, 2006ko uztailaren 3ko 79. Nafarroako Aldizkari Ofizialak zehaztu zuena?

- Zein departamentu eta eginkizun zehatzetan dute eragina hamalau postu horiek?

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Leitzako Ixkibar-Leitzelarrea turismo-multzoa Nafarroako Produktu Turistikoaren Garapenerako Planean sartzeari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Leitzako Ixkibar-Leitzelarrea turismo-multzoa Nafarroako Produktu Turistikoaren Garapenerako Planean sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Nafarroako Gobernuak asmorik ba al du Leitzako Ixkibar-Leitzelarrea turismo-multzoa Nafarroako Produktu Turistikoaren Garapenerako Planean sartzeko?

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, jakiteko zertan erabili zen Leitzako Maxurrenea errentan emateagatik 2009an jasotako dirua.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zertan erabili zen Leitzako Maxurrenea errentan emateagatik 2009an jasotako dirua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Zer inbertsiotan eta non erabili da Leitzako Maxurrenea etxea errentamenduan izateagatik 2009an jasotako dirua?

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Animalia Babesteko Zentroari eta zakurrak harrapatu eta biltzeko zerbitzuari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Animalia Babesteko Zentroari eta zakurrak harrapatu eta biltzeko zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2010eko apirilaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuak Osasun kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Zenbat animalia jasotzen dira hilero Animalia Babesteko Zentroan eta Zakurrak Harrapatu eta Biltzeko Zerbitzuan, zeinak Nafarroako Gobernuaren Osasun Publikoaren Institutuaren menpeko erakundeak baitira?

Nafarroako Gobernuaren Osasun Publikoaren Institutuaren menpeko erakunde diren Animalia Babesteko Zentroan eta Zakurrak Harrapatu eta Biltzeko Zerbitzuan biltzen, harrapatzen edo uzten diren animaliei buruzko hilabetekako estatistikak eskatzen ditugu, 2009koak eta 2010eko hilabete amaituetakoak.

2.- Zenbat animalia akabatzen, hiltzen edo adoptatzen dira hilero Animalia Babesteko Zentroan eta Zakurrak Harrapatu eta Biltzeko Zerbitzuan, zeinak Nafarroako Gobernuaren Osasun Publikoaren Institutuaren menpeko erakundeak baitira?

Nafarroako Gobernuaren Osasun Publikoaren Institutuaren menpeko erakunde diren Animalia Babesteko Zentroan eta Zakurrak Harrapatu eta Biltzeko Zerbitzuan akabatzen, hiltzen edo uzten

diren animaliei buruzko hilabetekako estatistikak eskatzen ditugu, 2009koak eta 2010eko hilabete amaituetakoak.

3.- Zenbat gastatzen du hilabetero zure Departamentuaren menpeko Osasun Publikoaren Institutuak Animalia Babesteko Zentroan akabatzen diren animalien eutanasiak egiteko erabiltzen diren farmako eta materialetan? Gastu xehakatu horien estatistikak eskatzen ditugu, 2009. urtekoak eta 2010eko hilabete amaituetakoak.

4.- Zenbatekoak dira hilabetero zure Departamentuaren menpeko Osasun Publikoaren Institutuak ordaindu beharreko gastuak, Animalia Babesteko Zentroko animalia-gorpuen kudeaketatik eratorriak? Gastu xehakatu horien estatistikak eskatzen ditugu, 2009. urtekoak eta 2010eko hilabete amaituetakoak.

5.- Zure Departamentuak asmorik ba al du Animalia Babesteko Zentroan errausketa-labe bat paratzeko, zentro horretako animalia-gorpuak erretzeko?

6.- Zenbat pertsonak egiten du lan Animalia Babesteko Zentroan, zeina Etxaurin baitago eta Nafarroako Gobernuaren Osasun Publikoaren Institutuaren menpeko erakundea baita? Zer ordutegi eta zeregin dituzte?

7.- Zenbat pertsonak egiten du lan Zakurrak Harrapatu eta Biltzeko Zerbitzuan, zeina Nafarroako Gobernuaren Osasun Publikoaren Institutuaren menpeko erakundea baita? Zer ordutegi eta zeregin dituzte?

8.- Jendaurreko zer ordutegi ezartzen dute kontratuaren baldintza orokorrekin Animalia Babesteko Zentroko, zeina Etxaurin baitago eta Nafarroako Gobernuaren Osasun Publikoaren Institutuaren menpeko erakundea baita? Jendaurreko zer ordutegi ezarri dute zure Departamentuaren menpeko Animalia Babesteko Zentroko kudeatzaile berriek?

9.- Nafarroako Gobernuaren Osasun Publikoaren Institutuaren menpekoa den Zakurrak Harrapatu eta Biltzeko Zerbitzuaren kontratuko baldintza orokorrekin zenbaterainoko berandutza ezartzen dute animaliak bildu eta harrapatzeko eskaera bakoitzari erantzuteko? Zure Departamentuak edo Osasun Publikoaren Institutuak jasotze-epeen urraketari buruzko kexarik jaso al dute udalengan-

dik, foruzain edo udaltzainengandik, albienteengandik edo partikularrengandik?

10.- Zure Departamentuak azterlanik egiten al du pertsoneri kutsa dakizkiekeen zoonosien prebentziorako eta giza osasunerako prebentzio-politikak taxutzeko? Zure Departamentuko zer esta-

mentu arduratzen dira azterlan horietaz, eta zer zuzendaritzapean eta irizpiderekin egiten dira?

Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garalde y Lazkano

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

2/2010 Legegintzako Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 2/2010 Legegintzako Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 160. artikulua, hona erabakia:

1. 2/2010 Legegintzako Foru Dekretua, martxoaren 22koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**2/2010 Legegintzako Foru Dekretua,
martxoaren 22koa, Tributu
Harmonizazioari buruzkoa, Balio
Erantsiaren gaineko Zergari buruzko
abenduaren 30eko 19/1992 Foru
Legea aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54. artikuluan 1. idatz-zatian xedatzen du ezen Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, tributu araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu estatuan unean-unean indarra duten arau berdin-berdinak, hots, funtsez eta formaz berdinak, Foru Komunitatean aplikatzea, Nafarroako Gobernuak,

Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik, behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela tributu arloko foru legeak aldatzeko.

Aipatu legegintza eskuordetua erabiliz, Nafarroako Gobernuak onesten dituen xedapen horiei Tributu Harmonizaziorako Legegintzako Foru Dekretuaren izena emanen zaie.

Bestalde, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua ezartzen du ezen, Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaintzeko orduan, Foru Komunitateak unean-unean estatuko lurraldean indarra duten oinarrizko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak erabiliko dituela. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena egin eta dirua pagatzeko ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere araubide erkideko lurraldeko datu berak jasoko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzerako pagatzeko epeak finkatzen ahalko ditu, Estatu Administrazioak ezartzen dituenetatik sobera bereziko ez direnak.

Zeharkako zergapetzearen esparruan zenbait zuzentarau desagerrarazten dituen eta, Europar Batasuneko araudira egokitzeko asmoz, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Legea aldatzen duen martxoaren 1eko 2/2010 Legeak Europar Batasuneko Kontseiluaren zuzentarau batzuen funtsezko edukia gehitu dio barne zuzenbideari, zuzentarau horiek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legeari eragiten dioten neurrian. Egia esan, 2008an Europar Batasuneko zenbait zuzentarau onetsi dira eta, batera tramitatu direnez Europar Batasuneko erakundeetan, "BEZ paketea" izena jarri zaie. Hona hemen zuzentarau horiek:

1. 2008/8/EEE Zuzentaraua, 2008ko otsailaren 12koa, zerbitzu-emateen kokalekuari dagokionez.

2. 2008/9/EE Zuzentaraua, 2008ko otsailaren 12koa, itzulketarako estatu kidean finkatuta ez dauden arren, beste estatu kide batean finkatuta

dauden subjektu pasiboei Balio Erantsiaren gaineko Zerga itzultzeari (2006/112/EE Zuzentarauan aipatua) buruz aplikatzen ahal diren xedapenak ezartzen dizkiena. Leihatila bakarreko sisteman oinarritzen da: eskatzaileek bide elektronikoaren bitartez aurkeztu beharko dituzte jasandako zerga finkatuta dauden estatu kidea ez den beste batean itzultzeko eskaerak.

3. 2008/117/EE Zuzentzara, 2008ko abenduaren 16koa, Balio Erantsiaren gaineko sistema arruntari buruzkoa, Europar Batasunaren barneko eragiketei lotutako zerga iruzurrari aurre egin nahi diona. Zenbait zerbitzu-emateren sorrarazpena harmonizatzen du eta (349 ereduak ukituko duten) Europar Batasunaren barneko eragiketen aitorpen laburtua aurkezteko epeak eta haren edukia aldatzen ditu.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legean egindako aldaketan ondorioz, Foru Komunitateak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen arauak egokitu beharko ditu, araudi horrek araubide erkidean izan dituen aldaketetara. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da, lehen aipatutako legegintzarako eskuordetza erabiliz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu baten bidez Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikularekin bat, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikularen arabera Nafarroako Foru Komunitateak estatuko lurraldean indarra duten arau berdinerak –bai funtsari, bai formari dagokionez– aplikatu behar dituen kasuak egokitzeko.

Zergapeko egintza mugatzeari dagokionez, hipoteka barrutiko likidazio bulegoko likidatzaile titularrak diren aldetik, jabetza erregistratzaileek ematen dituzten zerbitzuak enpresa edo lanbide jarduera bat garatzeko egin direla ulertu behar da. Horrela, araudia Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren jurisprudentziara egokitzen da eta jabetza erregistratzaileen zerbitzu zehatz horien loturari buruz azken urteotan piztu den ika-mika amaitzen da.

Horrez gain, enpresaburuaren edo profesionalaren kontzeptuari dagokionez eta zerbitzu-emateen kokalekuaren arau berrietara egokitzeko asmoz, honako hau ezarri da: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 69., 70. eta 72. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako baino ez, enpresaburu edo profesionaltzat joko dira bai, zergari lotuta ez dauden beste jarduera batzuekin batera, enpresa edo

lanbide jarduerak egiten dituztenak, bai, enpresaburu edo profesional jarduten ez badute ere, Espainiako Administrazioak emandako IFZ-BEZ esleituta duten pertsona juridikoak, ematen diren zerbitzu guztiei dagokienez.

Bestalde, zergaren sorrarazpenari buruzko zenbait alderdi aldatu dira. Gauzak horrela, hartzailea zergaren subjektu pasibo duten zerbitzu-emate zehatz batzuetan (foru legearen 31.1 artikularen 2. eta 3. idatz-zatietan aipatzen dira horiek), urte bakoitzeko abenduaren 31n zergaren sorrarazpena egingen da, eragiketa hasten denetik igarotzen den aldiari edo aurreko sorrarazpenetik egun horretara arteko aldiari dagokion proportzioran, jarduera horiek etengabe gauzatzen badira urtebetetik gorako epean eta aldi horretan ordainketa aurreraturik ez badakarte.

Halaber, subjektu pasiboaren kontzeptua ere nolabait aldatu da, zergapeko eragiketak jasotzen dituzten enpresaburu edo profesionali dagokienez. Oro har, eragiketak zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez dauden pertsonak edo entitateek egiten dituztenean eta hartzailea ere lurralde horretan finkatuta ez dagoenean, hartzaile hori ez da zergaren subjektu pasiboa izanen. Hala eta guztiz ere, arau horrek badu salbuespen bat, aldaketa dakarrena: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 69. artikularen Bat idatz-zatiaren 1. zenbakian agertzen diren zerbitzu-emateak izatea. Azken zerbitzu-emate horietan, haien hartzailea zergaren subjektu pasiboa izanen da.

Amaitzeko, sistema berria ezarri da, zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta dauden enpresaburu edo profesionalak Europar Batasunaren barnean baina zerga aplikatzen den lurraldetik kanpo egin diren eragiketek jasandako kuota itzul dakizkien eskatu ahal izateko. Kuota horien itzulketak nabarmen erraztuko da, itzulketa hori Tributu Administrazioaren Estatu Agentziaren atari elektronikoa horretarako agertzen diren formularioak erabilia eskabidea bide elektronikoaren bitartez aurkeztuz tramitatuko baita. Horri dagokionez, komeni da Kontseiluak 2003ko urriaren 7an Balio Erantsiaren gaineko Zergaren esparruko lankidetzaren administratiboari buruz eman zuen 1798/2003 (EE) Erregelamenduak estatu kideen artean informazioa trukatzeko eskumena Ekonomia eta Ogasun Ministerioko erakundeei esleitzen diela adieraztea, estatu kidea den aldetik Espainia aipatzeari dagokionez. Horregatik, zerga zuzen aplikatzen dela bermatzeko informazioa bide elektronikoaren bitartez trukatzeko sistema komun horretan (eta, bereziki, Europar Batasunaren barneko transakzioei dagokienez), Nafarroako Foru

Ogasunaren eginkizuna erregelamendu horrek adierazitako esparruan bere lankidetzak aktiboa ematea da.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek atzerako eragina izanen du, haren ondorioak harmonizatu beharreko araubide erkideko arauen ondorioekin bat etor daitezten.

Horren ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2009ko martxoaren 23an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu dira, eta ondoren azaldu bezala gelditu dira:

Bat. c) letra gehitu zaio 4.2 artikuluari.

“c) Hipoteka barrutiko likidazio bulegoko likidatzaile titularrak diren aldetik, jabetza erregistratzaileek ematen dituzten zerbitzuak.”

Bi. 4. zenbakia gehitu zaio 5. artikuluari.

“4. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 69., 70. eta 72. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako baino ez, enpresaburu edo profesionaltzat joko dira honako hauek, ematen diren zerbitzu guztiei dagokienez jardunda:

1. Zergari lotuta ez dauden beste jarduera batzuekin batera, enpresa edo lanbide jarduerak egiten dituztenak, foru lege honen 4. artikulua 1. zenbakian xedatutakoaren arabera.

2. Enpresaburu edo profesional jarduten ez duten pertsona juridikoak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako Espainiako Administrazioak emandako identifikazio zenbakia esleitura badute.”

Hiru. 23.4 artikulua.

“4. Eskuratzaileri erosketek sortu duten zergaren itzulketa osoa jasotzeko eskubidea ematen dioten Europar Batasunaren barneko ondasun erosketak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 119. edo 119.bis artikuluan ezarritakoaren arabera.”

Lau. 24.1.2 artikulua.

“2. Zerbitzu-emateetan, zergapeko eragiketak eman, gauzatu edo egiten direnean. Hala ere, foru

legearen 31.1 artikulua 2. eta 3. idatz-zatietan ezarritakoaren arabera hartzailea zergaren subjektu pasibo duten zerbitzu-emateetan, urte bakoitzeko abenduaren 31n zergaren sorrarazpena egiten da, eragiketa hasten denetik igarotzen den aldiari edo aurreko sorrarazpenetik egun horretara arteko aldiari dagokion proportzioan, jarduera horiek etengabe gauzatzen badira urtebetetik gorako epean eta aldi horretan ordainketa aurreraturik ez badakarte, zerbitzuak emateari utzi arte.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa izan ezik, materialak ekartzen dituzten obra exekuzioei dagokienez, ondasunak obraren jabearen eskura jartzen diren unean.”

Bost. 31. artikulua. Subjektu pasiboak.

“1. Zergaren subjektu pasiboak honako hauek izanen dira:

1. Enpresaburu edo profesionalen izaera duten eta zergari lotutako ondasun-entregak egin edo zerbitzuak ematen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, hurrengo idatz-zatietan ezarritakoa izan ezik.

2. Zergari lotutako eragiketak jasotzen dituzten enpresaburuak edo profesionalak, jarraian zehaztu diren kasuetan:

a) Zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez dauden pertsonak edo entitateek egiten dituztenean eragiketak.

Hala eta guztiz ere, letra honetan xedatutakoa ez da aplikatuko hurrengo kasuetan:

a') Zerbitzu-emateak direnean, hartzailea zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez dagoela. Salbuespena izanen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 69. artikulua Bat idatz-zatiaren 1. zenbakian aipatzen diren zerbitzu-emateak.

b') Aurreko a') azpilotan aipatutako legearen 68. artikulua Hiru eta Bost idatz-zatiek aipatzen dituzten ondasun-entregak direnean.

c') Foru lege honen 18. artikulua 1. eta 2. idatz-zatietan edo 22. artikuluan ezarritakoa aplikatuta, zergatik salbuesita dauden ondasun-entregak direnean.

b) Landu gabeko urrearen edo 325 milareneko legea edo hortik gorakoa duten urrezko produktu erdilanduen entregak direnean.

c) Hurrengo kasuetan:

– Industriako hondakin berrien, galdaketako zaborren eta hondakinen, metal ferrikoek eta ez ferrikoek osatzen dituzten hondarren eta berresku-

ratu beharreko gainerako materialen, haien aleazioen, zepen, hautsen eta metalak edo haien aleazioak dituzten industriako hondarren entregak.

– Aurreko marratxoan aipatu diren produktuak aukeratzeko, ebakitzeko, zatitzeko eta prentsatzeko eragiketak.

– Paperezko, kartoizko edo beirazko zaborren edo hondakinen entregak.

– Lehenbiziko marratxoan aipatu diren metal ez ferrikoak transformatu, egin edo galdatzetik ondorioztatutako produktu erdilanduen entregak, nikel ez osatutako produktuenak izan ezik. Bereziki, produktu erdilandutzat joko dira lingoteak, blokeak, xaflak, barrak, alekak, granailak eta burdin hariak.

Nolanahi ere, foru lege honen eranskinean zehaztu diren materialen entregak aurreko para-grafoetan sartuta daudela ulertuko da.

d) Zerbitzu-emateen xede direnean berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideak, isurien murrizketa ziurtatuak eta isuriak murrizteko unitateak. Horiei buruzkoak dira martxoaren 9ko 1/2005 Legea, Berotegi-efektuko Gasen Igorpen Eskubideen Salerosketa arautzen duena, eta uztailaren 20ko 1031/2007 Errege Dekretua, Kiotoko Protokoloaren Malgutasun Mekanismoetan parte hartzeko Esparrua garatzen duena.

3. Enpresaburu edo profesional jarduten ez badute ere, zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta ez dauden enpresaburuak edo profesionalak egiten dituzten eta jarraian adierazi diren zergari lotutako eragiketen hartzaileak diren pertsona juridikoak:

a) Foru lege honen 23.3 artikulua aipatzen dituen Europar Batasunaren barneko erosketen hurrengo entregak, horiek egiten dituen enpresaburuari edo profesionalari jakinarazten zaionean Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako Espainiako Administrazioak esleitutako identifikazio zenbakia.

b) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 69. eta 70. artikuluek aipatzen dituzten zerbitzu-emateak.

4. Aurreko zenbakietan xedatutakoari kalterik egin gabe eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 68. artikulua Zazpi idatz-zatian xedatutakoaren arabera, enpresaburuak edo profesionalak eta enpresaburu edo profesional jarduten ez duten pertsona juridikoak, zerga aplikatzen den lurraldean egiten diren gas eta elektrizitatearen entregak hartzaileak badira, baldin eta lurralde horretan finkatuta ez dagoen enpresaburu edo profesional batek egiten

badu entrega hori, eta enpresaburuari edo profesionalari Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako Espainiako Administrazioak esleitutako identifikazio zenbakia jakinarazten bazaio.

2. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, zerga aplikatzen den lurraldean jarduera ekonomikoaren egoitza, helbide fiskala edo establezimendu iraunkorra duten subjektu pasiboak bertan finkatuta daudela ulertuko da, establezimendu hori erabiltzen bada zergari lotutako ondasun-entregak eta zerbitzu-emateak egiteko.

Establezimendu iraunkorra zergari lotutako ondasun-entregak eta zerbitzu-emateak egiteko erabiltzen dela ulertuko da, ekoizpen faktore materialak eta giza arlokoak edo horietako bat antolatzen duenean, entrega edo emate bakoitza egiteko asmoz.

3. Subjektu pasibotzat hartuko dira, halaber, jaraunspen banatugabeak, ondasun komunitateak eta gainerako entitateak, zeinek, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo zerga ezar dakiokkeen ondare berezia osatzen baitute, zergari lotutako eragiketak egiten dituztenean.”

Sei. 63.bis artikulua berria gehitu da.

“63.bis artikulua. Zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta dauden enpresaburuak edo profesionalak egindako itzulketa eskabideak, Europar Batasunaren barnean egindako eragiketek jasandako kuotei dagozkienak, lurralde horretan egin diren eragiketen kuotei dagozkienak izan ezik.

Zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta dauden enpresaburuak edo profesionalak Europar Batasunean egindako ondasunen edo zerbitzuen erosketek edo inportazioek jasandako kuotak itzultzeko eskatuko dute, lurralde horretan egin diren eragiketei dagozkienak izan ezik, Tributu Administrazioaren Estatu Agentziaren atari elektronikoa horretarako agertzen diren formularioak erabilita eskabidea bide elektronikoa bitartez aurkeztuz.

Artikulu honek aipatu duen eskabidea hartzeko eta tramitatzeko, erregelamenduz ezartzen den prozedurari jarraituko zaio.”

Zazpi. 108.bis artikulua 1. eta 2. zenbakiak.

“1. Nafarroan finkatuta ez dauden enpresaburuak eta profesionalak kapitulu honetan aurreikusitako araubide bereziari atxikitzen ahalko zaizkio, zerbitzu elektronikoa eskaintzen badizkiete enpresaburu edo profesionalen izaera ez duten eta Nafarroan finkatuta dauden edo ohiko helbide edo bizilekua Nafarroan duten pertsonen.

Araubide berezia honako zerbitzu-emate hauei aplikatuko zaie: Balio Erantsiaren gaineko Zerga-

ren araubide arrunta arautzen duen Legearen 70. artikulua-ren Bat idatz-zatiaren 4. zenbakian xedatutakoaren arabera edo lege horren pareko diren Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako legeen arabera, Europar Batasunaren barnean egindakotzat hartu behar diren zerbitzu-emateak.

2. Kapitulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, honako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

a) "Europar Batasunean finkatuta ez dagoen enpresaburu edo profesionala": jarduera ekonomikoaren egoitza Europar Batasunaren barnean ez duten enpresaburu edo profesionalak, Europar Batasunaren lurraldearen barnean establezimendu iraunkor bat ez dutenak eta, halaber, foru lege honen 109.1.2 artikuluan eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 164.Bat.2 artikuluan xedatutakoaren arabera edo lege horren pareko diren Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako legeen arabera, edo beste edozein arrazoi batengatik, Europar Batasunean identifikatua egon beharrik ez dutenak.

b) "Zerbitzu elektronikoak" edo "bide elektronikoz emandako zerbitzuak": Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 69. artikulua-ren Hiru idatz-zatiaren 4. zenbakian adierazitako zerbitzuak.

c) "Identifikaziorako estatu kidea": artikulua honetan xedatutakoari jarraikiz, Europar Batasunean finkatuta ez dagoen enpresaburuak edo profesionalak jarduera hastearren deklarazioa aurkezteko aukeratzen duen Europar Batasuneko lurraldearen barneko estatu kidea.

d) "Kontsumorako estatu kidea": Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 70. artikulua-ren Bat idatz-zatiaren 4. zenbakian xedatutakoaren arabera, edo lege horren pareko diren Europar Batasuneko beste herrialde batzuetako legeen arabera, zerbitzu elektronikoen zerbitzu-ematea egiten deneko estatu kidea.

e) "Bide elektronikoz emandako zerbitzuei aplikatu beharreko araubide bereziaren aldizkako aitorten-likidazioa": estatu kide bakoitzari dagokion zerga zatia finkatzeko beharrezkoa den informazioa biltzen duen aitorten-likidazioa."

Zortzi. 108.ter artikulua-ren 2. zenbakia.

"2. Europar Batasunean finkatuta ez dagoen enpresaburuak edo profesionalak araubide berezian hasteko aitortpena Espainiaz kanpoko beste estatu kide batean aurkeztea aukeratu baldin

badu, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 70. artikulua-ren Bat idatz-zatiaren 4. zenbakian xedatutakoaren arabera, zerga aplikatzen den lurraldearen barnean egindakotzat hartu behar diren eragiketegi dagoenez, aurreko zenbakian aipatu aitortpena identifikaziorako estatu kidean aurkeztuz egin behar da eragiketegi horiei dagokien zergaren ordainketa.

Gainera, Europar Batasunean finkatuta ez dagoen enpresaburuak edo profesionalak aurreko 1. zenbakian aipatu beharkizunak identifikaziorako estatu kidean bete beharko ditu, zehazki, zenbaki horren d) letran adierazitakoak. Orobat, enpresaburuak edo profesionalak faktura edo horren ordezkari agiria luzatu eta eman beharko du, eragiketegi hartzailea zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta baldin badago edo ohiko helbide edo bizilekua bertan baldin badu."

Bederatzi. 108.quáter artikulua.

"108.quáter artikulua. Jasandako kuoten kenkaria egiteko eskubidea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide komuna arautzen duen Legearen 119. artikulua-ren Bi idatz-zatiaren 2. zenbakian xedatutakoari kalterik egin gabe, Europar Batasunean finkatuta ez dauden eta araubide berezia aukeratzen duten profesionalak edo enpresaburuek zerga aplikatzen den lurraldean egindakotzat hartu beharreko ondasun eta zerbitzuak erosi edo inportatzeko orduan jasandako kuotak, Balio Erantsiaren gaineko Zergarenak, alegia, itzultzeko eskubidea izanen dute; betiere, ondasun eta zerbitzu horiek foru lege honen 108.bis artikulua-ren 2. idatz-zatiaren b) letran aipatu zerbitzu-emateak egiteko erabiltzen badira. Eskubide hori baliatzeko prozedura Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 119.bis artikuluan ezarritakoa izanen da.

Horren ondorioetarako, ez da eskatuko zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta dauden enpresaburu edo profesionalen aldeko tratuekiko-tasuna aitortua izatea.

Artikulu honetan ezarritakoari lotzen zaizkion enpresaburu edo profesionalak ez dute zerga administrazioarekiko harremanetarako ordezkariarik aurkeztu beharrik."

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

